

6. BANAKETA ETA KOMUNIKAZIO KANALAK

BANAKETA KANALAK

Proiektuak eskaintzen dituen zerbitzuak izaera immaterialekoak dira, hau da, ez dira produktu fisikoak, eta horrek banaketa-modu berezi eta egokitua eskatzen du. Hori dela eta, zerbitzuen banaketa nagusiki presentziala eta zuzena izango da, adineko pertsonen behar, ohitura eta gaitasunetara egokituta, arreta pertsonalizatua eta hurbila bermatzeko helburuarekin.

Alde batetik, jarduera presentzialek izango dute pisu handiena proiektuan. Ekintzak zuzenean egingo dira egoitzetan, jubilatuetan, udal instalazioetan edota naturguneetan, jarduera motaren arabera. Kokapen horiek adineko pertsonentzat ezagunak eta irigarriak dira, eta horrek parte-hartzea errazten du. Jarduera fisikoak, kulturalak edo sozialak espazio egokietan garatuko dira, segurtasuna eta erosotasuna lehenetsiz, eta parte-hartzaileen arteko harremanak eta interakzio soziala sustatuz. Presentzialtasunak, gainera, konfiantza giroa sortzen du, eta horrek zerbitzuaren kalitatea eta erabiltzaileen gogobetetasuna handitzen ditu.

Bestetik, erakunde bitartekariak funtsezko zeregina izango dute zerbitzuak azken erabiltzaileengana iristeko. Udalek, egoitzek eta elkarteek bitartekari gisa jardungo dute, jardueren antolaketan, komunikazioan eta parte-hartzaileen kudeaketan lagunduz. Erakunde horiek adineko pertsonekin harreman zuzena dute, eta horrek aukera ematen du zerbitzuak modu eraginkorrean zabaltzeko eta benetako beharretara egokitzeko. Lankidetzaren bidez, jardueren eskaintza hobeto planifikatu ahal izango da, eta baliabideak modu koordinatuan erabiliko dira.

Azkenik, online sarbidea ere aurreikusten da zerbitzuen osagarri gisa. Webgune baten bidez informazioa eskura egongo da, jardueren deskribapenak, egutegiak eta izen-emate edo erreserba aukerak barne. Nahiz eta presentzialtasuna lehenetsi, online tresna honek erraztasunak emango dizkie bai erabiltzaileei bai senideei edo erakunde arduradunei, informazioa eskuratzeko eta antolaketa-lanak egiteko. Hala ere, kontuan hartuko da adineko pertsona askoren gaitasun digitala mugatua izan daitekeela, eta horregatik online kanalak laguntza-tresna gisa ulertuko dira, betiere arreta pertsonala eta aurrez aurrekoa lehenetsiz.

Sare sozialek ere beren lekua izango dute komunikazio-estrategian, bereziki Instagram eta TikTok plataformen bidez. Kanal horien helburua ez da soilik adinekoengana iristea, baizik eta batez ere gazteengana hurbiltzea, belaunaldien arteko parte-hartzea eta sentsibilizazioa sustatzeko. Sare sozialen bidez jardueren berri emango da, esperientziak partekatuko dira eta proiektuaren balio soziala zabalduko da, ikuspegi dinamiko eta erakargarri batekin.

Azkenik, eskuorriak eta ahoz-ahoko zabalkundea oso tresna eraginkorrak izango dira adinekoen artean informazioa hedatzeko. Eskuorriak toki estrategikoetan banatuko dira, hala nola jublatu-etxeetan, egoitzetan edo udal eraikinetan, informazioa modu errazean eta irisgarrian eskaintzeko. Ahoz-ahoko komunikazioak, berriz, konfiantza handia sortzen du kolektibo honetan, eta erabiltzaileen arteko gomendioek proiektuaren sinesgarritasuna eta parte-hartzea nabarmen handitzen dute.